



ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO SEKTORE PUBLIKOKO ORDEZKARIEN ETA KARGUDUN PUBLIKOEN ETIKA ETA JOKABIDE KODEA BETE DEN IKUSKATZEKO URTEKO TXOSTENA.

Administrazio Publikoen gobernantza eta administrazio onari buruzko programak garatzeko, irailaren 3ko Foru Gobernuaren Kontseiluaren 477/2015 Akordioa dela bide, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko ordezkarien eta kargudun publikoen Etika Gobernu Onaren Kodea onartu zen, gobernu ona lortzen laguntzeko helburuz. Gobernu ona printzipio etikoetan oinarritzen da eta ahaleginak egiten ditu herritarrek hobeto ezagut ditzaten interes orokorreko kudeaketa beren gain hartuta duten pertsonen betebeharrak.

Hala, bada, kode hori zaindu eta ebaluatzeko tresna eraginkor bat ezartzearen, zazpigarren atalaren bidez, Gobernu kideen eta Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko goi kargudunen Etika Publikoko Batzordea eratu zen. Batzorde horren ardurapekoak dira Etika Publikoaren eta Gobernu Onaren Kodeari buruzko kontsultei erantzutea eta kode horren betetze maila sustatzea, ikuskatzea eta hobetzea.

Aurreko txostena orain dela ia urtebete eman zen, hain zuzen ere, 2016ko azaroaren 7an. Beste alde batetik, batzordearen urteko jardueraren eta etika eta gobernuari buruzko kodearen betetze mailaren ikuskapenaren inguruko txostena prestatzea organo horri dagokiola kontuan hartuta, honako agiri hau egin da urtean gauzatutako jardueren kontuak emateko. Agiria Foru Gobernuaren Kontseilura helaraziko da, organo horrek ezagut dezan eta argitara dezan.

Urtean burututako jarduerari buruzko lehen hurbilketa egiteko, adierazi beharra dago Etika Publikoko Batzordeak ez duela jaso ez oharrik, ez kontsultarik, ezta iradokizunik ere, Etika eta Gobernu onari buruzko Kodean agertzen diren xedapenen inguruan. Era berean, ez da salaketarik edo kexarik jaso kodean ageri diren balio, printzipio edo jokabideak ez betetzeagatik.

Kodearen aplikazioaren eremuari atxikitako pertsona batek egindako kontsulta bakarra besterik ez da jaso, pertsona horren jardunbidearen zilegitasun etikoaren ingurukoa, aipatutako kargua betetzen ari zela, abstentzioa eman eta parte hartu ez zuelako zerbitzu publiko baten kudeaketa lizitzeko prozeduran. Ildo horretan, Etika Batzorde honek, 2016ko abenduaren 12ko Ebazpena dela bide, xedatu zuen pertsona interesdunak Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargudun publikoen erakunde osotasunaren sistemarekin egokien datorren jarrera hartu zuela –kontratazio prozedura horren ezagueran eta ebazpenean inhibitu zelako– Etika Kodearen izaeraren eta xedearekin bat datorren neurririk zuzenena izan zelako.



Beste alde batetik, batzarde honek adierazi nahi du beste sei pertsona hasi direla Etika eta Gobernu Onaren Kodearen aplikazio eremuan, ekitaldian egin diren hiru karguren izendapenaren ondorioz. Ondokoak dira aipatutako karguak: INDESA foru sozietate publikoko zuzendari kudeatzailea, Arabako Suhiltzaileak-Bomberos de Álava erakunde autonomoko zuzendari kudeatzailea, Funtzio Publikoko zuzendari berria, Zerbitzu Orokorretako zuzendari berria, Gizarte Zerbitzuen zuzendari berria eta Nekazaritza zuzendari berria. Era berean, esan behar da horiei guztiei bidali geniola men egin beharreko Etika Kodearen kopia bana.

Bestalde, Etika batzardeak honako hau proposatu zuen 2016ko txostenean: “*Arabako Lurralde Historiko honetako sektore publikoko kargudun publiko eta ordezkarien Etika eta Gobernu Onaren Kodearen zabalkundearekin areagotzea kidego horretan, unean-unean eraginkorrenzat jotzen diren zabalkunde eta prestakuntza baliabideak erabiliz*”. Xede horretarako, batzarde honetako kide den Ahaldu Nagusiaren Kabineteko zuzendariak jardunaldi batzuetan parte hartu zuen Donostian, uztailaren 13an eta 14an, gai honen inguruan: “Gobernu irekia desmitifikatzen”. Jardunaldien helburua izan zen bidaia orri erabilgarria taxutzea administrazio eta antolakundeentzat arlo horren inguruan.

Azkenik, Etika Publikoko batzardeko kideek ondokoa adierazi nahi dute: kodeak berak eta horren jarraipen eta ebaluazio sistemak foru goi kargudunek izan ditzaketan jokamolde larderiatsuak –etikaren ikuspegitik– ez gertatzea osoro bermatzen ez duen arren, kodean jasotako osotasun sistemak portaera etikoari lotutako estandar handia dakar arestian esandako kargu publiko horientzat, eta beraien jokamoldeak ikuskatzeko tresna objektiboa eskaintzen du.

Horregatik, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargudun publikoen eta ordezkarien Etika eta Gobernu Onaren Kodean jasota dauden **printzipio etiko eta jokabidezkoen betetze mailari dagokionez**, eta aipatutako kodearen zazpigarren ataleko 3. zenbakian xedatutakoa betetzeko xedez, ondokoak adierazi nahi ditugu:

Lehenengoa.- Arabako Lurralde Historikoko goi kargudunen Etika Publikoko Batzardeak ez du egiaztatu kargudun horiei aplikatzeko zaien Etikaren eta Gobernu Onaren Kodean jasotako printzipio etiko eta jokabidezkoen zorroztz bete ez dutenik beren jardunbidean.

Bigarrena.- goi kargudunen neurriak eta gastu publikoari eusteko neurriak eta austeritateari dagozkionak betetzeko xedez, ez da egiaztatu era desegokian erabili diren Foru Gobernuaren Kontseiluko kideek eta goi kargudunek bere esku dituzten Arabako Foru Aldundiaren jabetzakako ondasun eta zerbitzuak.

Hirugarrena.- Aurreko txostena eman zenetik, hau da, 2016ko azaroaren 7tik, eta honako txosten hau sinatu den egunera arte igaro den aldirian, ez da egiaztatu lehen esandako printzipio etiko eta jokabidezkoen urratzerik.



Laburbilduz, 2016ko azaroaren 7tik, irailaren 3ko Foru Gobernuaren Kontseiluaren 477/2015 Akordioak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargudun publikoen eta ordezkarien Etika eta Gobernu Onaren Kodea onartzen duenak, jasotzen dituen xedapenei jarraiki, kode horren urraketari lotutako kexa, salaketa edo oharrik egin ez denez, baieztatu daiteke Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargudun publikoen eta ordezkarien jarduerak interes orokorraren zerbitzuari heldu diola eta kodean ezarritako printzipioak zein ordenamendu juridikoak ezartzen dituenak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren jarduera artezteko helburuz, zorroztasunez bete direla.

Aldi berean, agiri ireki eta malgua prestatzeko asmoz, Etika kodearen zazpigarren ataleko 5. zenbakiak xedatzen duena aintzat hartuta, batzordeko kideek ez dute beste proposamenik orain mahairatzeko, baina berriro ere azpimarratu nahi dute Arabako Lurralde Historiko honetako sektore publikoko kargudun publiko eta ordezkarien Etika eta Gobernu Onaren Kodeari zabalkundea eman eta horren inguruko prestakuntza eskaini behar dela administrazioan nahiz gizartean.

Gasteizen, 2017ko urriaren 30ean.